

Nafarrakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko irailaren 15a / VI. urtea / 196. zenbakia



Lauzprobost hilabete pasatzen zituzten etxetik kanpo Ternuako arrantzaleek.

Nafarrak Ternuan

50eko hamarkadan Nafarroako gizon askok hartu zuten itsasorako bidea. Gure herrialdean lanik ezin aurkitu, itsasoa izan zuten aukera bakarra. Ternuako uretan bakailaoa harrapatzen eman

dituzte urteak eta urteak, eta bertako hotza, zikloiak eta ekaitzik izugarrienak pairatu dituzte. Arrantzaleen bizimoduaren gogortasuna gogoratu dute bertan ibilitako bi nafarrek egunkari honetan.

Haurrak eskolan hasiak ditugu, ikastolan Lankratxek (Ez batera ez bertzera ez eramateko erraten digute new agezaleek). Ukabilak altxatu ditugu eta sagardoz betetako bien basoek txoke egin dute airean. Eta sagarraren zumoak sendatu ditu eztabaidak gure baitan idekitako zauriak. Baina munduaren sukarra gero eta handiagoa omen da. Zientzilariek errana. Horiek erran gabe ere sumatzen genuen guk munduaren beroaldia. Etxean eta auzoan ez da surik falta. Su emaiak ere sobera. Eta bero horren kontura bizi direnak ere bai. Horien berri askorik ez ordea. Dena dela, honengatik edo harengatik, muturretako izotz mendiak urtuko omen dira berandu gabe. Kantabrikoa Beraraino, eta Al-

kaiagan itsas portua. Larun begiratoki paregabea, utikan Urgull. Fuera aizkol apostuak eta estropadak nagusi. Iruñekoak uda pasa Berrizaundik Bereaura bitarteko hondartzara. Orduan bai Bidasoako Errepublika. Belatek hasi eta Zalaineraino. Nafarroak bere itsasoa izaten ahal,...baina nahi badu, gurekin solastu beharko dute, eta orain baino finxeago ibiliko dira agian. Ez diegu egin ezinik eskatuko halere. Maina batzuk egiten badizkigute, aisa engainatuko gaituzte. Maitasun pixar bat ber-

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



tzerik ez baitugu nahi. Horrekin aski. Guk ere begiak zabal-zabalik begiratzen baitugu hegoaldera, Belateko eskapareteko kristalean mukiak utzita. Geografia elkari erakutsi. Berriz ere eskolara, alegia. Horixe! Orain da tenorea, ttikientzat, koxkorrentzat,...bai eta jubila-tuentzat ere. Eta hor ea zenbatek ematen duten izena euskara ikas-teko. Euskararen karrera: etxeko erdararekin bide nekosoia egitera hurbiltzen diren dordoka balienteak eta etxeko euskara erdi galduarekin animatzen diren erbi

nagiak. Eta, horietatik aparte, ea zenbatek ematen duten pausoa praktikatzen hasteko. Baina udazkenaren atari honetan falta dugun praktika, ziza horia, gibelurdina eta gorringoa eta horien adiskideak biltzekoa da. Ilargi beteja pasa zen eta gure oihanetan alerik ere ez.

Uda luzeko agorraldiak antzutu ote ditu gure mendiak? Urrikitu berriak bide ditugun jainkoek hodeietatik aste honetan berean bota dizkiguten pixa erasoak, nahikoak izan ote dira lurpeko erraiak pixka bat bederen mugiarazteko? Lankratxek eta biek behinik behin oraindik ez dugu onddo-jate on bat egiteko esperantza galdu. Goizaldeak giro onean harrapa gaitzala, lertxunak nola pasatzen diren zerrura begira!

Udazkenaren atarian

XX GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK



Geoide ikus-entzutezko ikuskizuna Iruñeko Planetarioan dago zabalik urriaren 15era arte. Batetik, kartografiaren historia eta mapak nola irakurri behar diren azaltzen den pelikula eskaintzen da eta bestetik, kartografiaren historia biltzen duen erakusketa dago. Ikuskizuna, goizez; 11,30etan eta 12,30etan eta arratsalde; 6etan, 7etan eta 8etan ikusi daiteke asteartetik larunbatera. Igandetan, 12etan eta 13etan dago zabalik eta astelehenean itxirik.

Miguel Hernandez idazlearen home- nez Lizarrako Gustavo de Maeztu museoan margoak daude ikusgai. Erakusketa hilabete osoan egonen da zabalik. Astez, 11etatik 13tara eta 17etatik 19tara. Asteburuetan ber- rriz, 11etatik 13tara eta astelehenean itxita dago.

Iruñeko Gotorlekuan zinemaren 100 urteak betetzen direla eta, 'Beautles' argazki erakusketa zaba- lik dago. Ikuskizuna urriaren bata bitartean dago zabalik.

Gazteriaren Etxean, Iruñean, Patxi Sanchez-Dehesaren argazkiak dau- de ikusgai. Erakusketa igandearte dago zabalik.

ANTZERKIA



Zugarramurdiko leizeetan Kilimi- liklik txontxongilo taldeak Sorgiñak lana antzeztuko du. Emanaldiak as- tez, 18etan izanen dira eta astebu- ruetan, 13etan eta 18etan eta irala osoan zehar luzatuko dira.

Mozorro Berri 95ekitaldien bar- ruan, Kollins Clown antzerki tal- deak 'Ongi etorriak mendebaldera' lana antzeztuko du heldu den oste- gunean Orkoienen. Ekitaldia arra- tsaldekoko zortzietan izanen da herriko plazan.

MUSIKA



Antsoaingo eskolan, bihar, Etsaiak, Eskorbuto, Nahi ta Nahiez, Ekaitzak eta Eragaitz rock taldeekin kontzer- tua izanen da. Jarraik antolatuta, gaueko 12,30etan hasiko da eta sar- rerrak, 800 pezeta aurretik eta 1000 pezeta bertan balioko du.

Lizarran Aintzinako Musika As- tearen egitaraua barruan, 'The Gab- rieli Consort & Players' taldeak musika emanaldia emanen du. Kon- zertua gaur izanen da arratsaldekoko 8etan herriko San Miguel elizan.

ZINEMA



'Carga Mortal' pelikula Udako Zi- nema egitarauaren barruan, Burlata- ko Floirac plazan eskainiko dute gaur. Emanaldia gaueko 10,30etatik aitzina izango da.

DANTZA



Irurtzungo Foru enparantzan Przemysl Poloniako taldeak dantza- tuko du bihar. Ikuskizuna arratsal- deko zazpietatik aitzina izanen da.

NAFAR KRONIKA

MIKEL BUJANDA

Ofizio aula

Artzainarena. Zoaz orain eta segi bideari. Bi egun t' erdi eginak ditut, beste horren- beste egiteko. Ez nago bakarrik, nere ardi saldo honetako 1.400 buru ergel hauezaz gainera (nota hartzen hasi, kazetari, 1.400 bu- ru), bada lau hanketakoen kon- painiaz gainera, hementxe dauz- kat moda berriko turistak, mo- txila eta argazkimakina harturik.



Hemen goaz, zangoen gainean. Pintoreskoa baita ardi bideena, «mendetako tradizio zahar urtero berritua», aisia eta kirola batzen dute, kultura ere bai.

Aspertuko dira artile urrina gainetik ezin kendu dabilzala somatzean. Haien oporretan egun batzuk gordetzen dituzte kakabikorren gainean zirrizta- tzeko. Oporrak, non dira artzai- narenak? Hori bai, asko dakite, «natura zaindu behar da, hegazi- tiak babestu». Neri esan behar didate. Neure begiek ikusia dute

ur xirriparen bila? Ez zuten jeitxi nahi, amiltzearen beldurrez, eta lau egun, bata bestearen atzetik zeramaten ur ttantarik edan ga- be! Ez iturri, ez putzu, dena idor. Egarririk ere ez zuten. Nola, bai- na, jan ere ez baitute egiten. Hatz bat goratzen zuen belar alerik ez zen larreetan. Ezin han gelditu, eta Bardeetako atea itxi nahi. San Miguel egunera arte sartze- rik ez genuela. Sartuko naiz bai, astelehenean bertan, goardak le- hendabiziko eskopetazoa eman orduko. Hori, iristen bagara. Gi-

daririk gabe gelditu baitzait ia artalde. Hortxe joan zaizkit zi- kiroak, harro bezain eroak, hai- tzetan gora, eta gero ez itzuli nahi. Jeitxiko dira nahi badute, edo bertan amildu ta galdu daite- zela!

Nobedade gara, bai jauna, egun bateko notizia. Hantxe izan- nen ditugu. Kazetariak. Hoiek dira okerrenak. «—Zein dira la-

ASTEKO PERTSONAIK



Miguel Izu
Iruñerriko Mankomunitateko lehendakaria

Iruñerriko Mankomunitateak lehendakari berria dauka dagoeneko. Asteartean egindako batzarrean Miguel Izu Izquierda Unidako al- derdiko zinegotzia izendatu zuten erakunde horretako buru, gehiengo zabalez gainera. Izuk PSN, CDN eta IU alderdien sustenguekin aurkeztu zen kargurako eta, horien botoak ezezik, Herri Batasunare- nak eta zenbait batzarkide independenterenak ere eskuratu zituen. Izquierda Unidakoak 33 boto jaso zituen osotara. Miguel Gonzalez Fontana UPNko hautagaiak, berriz, 21 besterik ez. Iruñerriko Man- komunitateko lehendakari berriak bere soldata oparoa (zazpi milioi pasatxo) jaisteko edo erabat kentzeko aukera aztertuko dutela hitz eman zuen.




Fermin Tajadura
San Antonioko zuzendaria

Fermin Tajadura zuzentzen duen San Antonio eskubaloit taldeak babesle berria lortu berri du. Aurrezki Kutxarekin kontratua hitzartu ondoren, eskubaloitko talde nafarrak hamar milioi inguruko di- rulaguntza eta izen berria izanen du; hemendik aurrera Lagun Aro izena hartuko du San Antonio taldeak. Eskubaloitko Ohorezko Mailan segituz gero, hasi berri den denboraldian ezezik, hurrengoan ere izanen dute babesa nafarrek eta baliteke urte gehiagorako luzatzea. Aurrezki Kutxarekin sinaturiko hitzarmen honek eskubaloit taldeak zuen arazo larriena eta korapilotsuena konpondu du. Izan ere, orain dela urte batzuk babeslea galdu zuen San Antoniok, eta Ohorezko Mailari uko egin behar izan zion.

AHAZTU GABE!

ERAKUSKETA



'Euskara betiko mintzoa' erakus- keta zabaldu da San Adrian her- rrian. Erakusketa Nafarroako Gobernuak egin du eta astele- henera arte egonen da zabalik herriko Kultur Etxean. Erakus- ketak Nafarroako errealitatea elebiduna dela erakutsi nahi du eta euskara herrialdean bizirik dagoela frogatzea du helburu. 'Euskara betiko mintzoa' sei ataletan banatua dago. Zati ba- koitzean, panel haundi baten bi- tartez eta testu laburrez lagun- durik, euskarari buruzko hain- bat berezitasun aipatzen dira. Alor bakoitza aditu batek jorra- tu du. Ricardo Zierbide, Nafar- roan dauden kultura eta hiz- kuntza desberdinen elkarbizit- taz mintzaten da. Patxi Sala- berrik, euskararen toponimiak dituen mugak aipatzen ditu. Euskara eta Nafarroako Errei- nuaz mintzaten da Alfonso Iri- goien eta Jose M^a Satrustegik, Euskara eta Eliza dira aztergai. Azken bi ataletan, Jimeno Ju- riok euskara nola galdu deneko prozesua eta Juantxo Urdirozek euskararen etorkizunari buruz egindako lana dira aipagai. Era- kusketako testu guztiak elebi- dunak dira eta bereziki ikasten dauden haurrei eskainia dago.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostira- lera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00eta- ra... 'Karakola segi hola' gaz- teendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasu- na, sukaldaritza, ohiturak...

Kroketa usaina

Gau hartan kartzelako jantokian giroa ez zen ohikoa. Presoon begiradek dirdir berezia zuten, etsita dauden gizonen begiek, edozein gauza egiteko prest dauden gizonen begiek izaten ohi dutena hain zuzen ere. Funtzionariak berehala atzeman zuten dirdira berezi hori, eta atzeman bezain pronto urduri jarri ziren. Tentsioa presook erabili behar izaten ditugun plastikozko laban traketsekin moztu zitekeen. Jantokiari motin lurrina zerion, eta usain atsegin horren jatorria plastikozko laban, goilara eta sardesken ondoan zegoen, metalezko bandeja hotzen erdian hain zuzen: kroketak ziren, eta usaina, kroketa usaina.

Presook gutxitan jaten ditugu kroketak, kartzelako kroketak gutxitan egoten dira onak, eta egun hartako kroketek —batek daki zer nolako miraria dela medio— Argiñanoren maisu-lana ziruditen. Preso bakoitzari hiru besterik ez zizkiguten eman, eta guztiok gehiago nahi genituen, kroketa, patxaran, askatasun gehiago... Guztiok gure eserlekuetatik altxatu, eta funtzionariengana jo genuen, gehiago eskatzera. Motin lurrina motin erreala bilakatzen zen. Azkenean, baina, zerbitzuruak, guztiak zigortuko gintuzten mehatxua eginez, giroa baretzea lortu zuen. Preso gehienak eserlekuetara itzuli ziren, baina gutxi batzuek, putre zikin batzuek, ate ondoko bandeja handirantz jo zuten, soberan geratu kroketak jasotzeko. Aitortu beharra daukat, ni neu gizon gogaikarri horien artean nengoan. Nire amonak dioenez, jakin badakizu kartzelan nola sartzen zaren, baina ez, ordea, bertatik nola aterako zaren.

Haurtzaroan zehar guztiok entzun ditugu gure gurasoen ahotik gisa honetako esaldiak: «Ni bezala gerra ostean hazi izan bazina, guttia janen zenuke». Intsumituen seme-alabek ere antzeko sermoiak entzuten dituzte, «kartzelan ematen zigutena jan beharko zenuke» eta antzekoak; izan ere, haien aitak izanen garenon urdaiak espetxe honetan pairatzen ari direna, eufemismo batekin definiturik, ez da normala.

Neskentzat ere hasi da denboraldia

JON ABRIL / BERA

Futbolak eta kirolek oro har denboraldi berri bati ekin diote. Emakumeentzat ere iritsi da txanda. Berako Gure Txokoa futbol taldeko neskek etzi jokatu dute aurtengo lehenengo norgehiagoka.

Orain bost urte sortu zen Bortziriak izeneko emakumeen futbol taldea. «Aurretik gehienak futbitoan ibiliak ginen, eta hortik sortu zen taldea», dio Juanak, taldeko beteranoenak. Nafarrak izan arren, Gipuzkoako Ligan jokatu zituzten lehen hiru denboraldiak. 93-94 denboraldia ez dute erraz ahaztuko neska gazte hauek: «Ordurako Bortziriak elkarrekin desagertu zen. Gure Txokoarekin jokatu genuen lehen denboraldia izan zen. Gipuzkoako Liga irabazi genuen eta kopako finalera heldu ginen handik bi hilabetera», gogora dakarte neska guztiak aho batez. «Tentsio handiko uneak izan ziren haiek. Hain ongi geldituko ginenik ere ez genuen espero. Zoragarria izan zen», Gorane taldeko atezainaren arabera. Hurrezkerok, Euskal Herri mailako ligan jokatzeko dute.

Emakume izateagatik ez dute arazorik aurkitu euren ibilbidean. «Arazoak beti daude, baina ez emakumeak izateagatik. Federazioarekin eta arbitroekin beti moldatu gara ongi». Gurutze eta Itsaso bikiek etxean futboleko jokatu behar zutelaren esan zutenean oztupoak izan zituzten. «Futbola mutilentzako dela uste dute, neskentzako ez dela ego-



Bortziriak taldeko neskek lan polita egin zuten aurreko denboraldian.

kia». Berehala jaso zuten laguntza etxeko aldetik, eta onartu eta bultzatu egiten dituzte.

Estitxuren ustez, heziketa kontua da guztia: «Mutilei tikititikatik ematen zaie baloia. Neskei, berriz, panpinak. Gu ere futboleko betidanik ibili izan bagina, mutilekiko diferentziak urriagoak lirateke. Ikastola eta eskolak bere lana badute». Gainerako taldekideak bat datoz Estitxurekin. Horren frogarik ere badela diote gainera: «Joxe Luis gure entrenatzaileak, Berako ikastolan neskek futboleko jokatzen jartzen ditu soinketa orduetan. Errazagoa da gero neska horiek kirolzaleak izatea».

Neskek ezinbestekotzat jotzen

dute komunikabideen lana eta bereziki telebistarena, orain arte emakumezkoen kiroltan tenisa eta atletismoak bakarrik lortu dutelako nolabaiteko oihartzuna.

Oraindik herrian duten onarpena urria da. Jendeak ez dio garrantzi handirik ematen emakumezkoen futbolari. Hala ere, euren alde zerbait badutela uste dute: gizonezkoen artean futbola biolentziari lotuta agertzen da, ez, ordea, nesken kasuan. «Lesioei erreparatzea baino ez dago. Txartelak askoz guttiago dira eta daudenak bertze kontuengatik dira». Gainera, azpimarratzekoa da beratarrek kiroltasun saria jasotzea bi urtetan.

Aipamen bat merezi du, hala-

ber, Joxe Luis Alzugarai 'Zikirok', bera izan baita jokalariez landa ilusio handien eragin duena inguru honetan. Hamar urte daramatza emakumeak entrenatzen. Beti Gazterekin hasi zen eta, bi urte geroago, hura desagertzean, Añorgara joan zen. Hiru urtetan arrakasta handia lortu ondoren Berara itzuli zen. Neskekin tratu berezia behar delakoan dago Zikirok: «Ezin da gizonen era berean planteamendurik egin. Goxotasuna eskaini behar zaie».

Talde mugatua den arren —hamasei jokalarik osatua, horietatik hiru berriak—, horrelako herri tiki baterako plantila polita bildu dela dio Zikirok. «Atzetik ere neska gazte mordoška bat dator eta maila hobetzen ari dela pentsatu nahi dut», dio.

Gorane, Ainhoa, Maider, Mirian, Edurne, Idoia, Maite, Aitziber, Juana, Gurutze, Estitxu, Itsaso, Erika, Amaia, Ainhoa eta Amaiak osatzen dute Euskal herri mailako ligan jokatzeko duen futbol talderik gazteenetako bat.

'Uhartekoak' lana kalean

IRUNEA

Uharteko gaiteroen taldeak herriko musika talde guztien lana biltzen duen diska kaleratu du Gor zigiluarekin eskutik eta Uharteko Udalaren laguntzaz. Uharteko gaiteroak, txistulariak, Ardanbera fanfarrea, Uharteko txalaparta, Koiuntura Folk, Voces Amigas, Epsilon eta Virgen Blanca abesbatzaren lanak 'Uhartekoak' izenburupean dira entzungai. Besteak beste, Turrilas, Olazarán, Irigoien, J. Romano, Sorozabal eta E. Fraile konpositoreen abestiak jaso dituzte Uhartekoak lan honetan. Osotara, 75 lagunek hartu dute parte 22 kanta hauen grabaketan. Zaila da talde guzti hauek batera

ikustea eta horregatik «bereiztat» jo dute egileek egun hauek kalean den lana.

Espartzako Sonido XXI estudioetan grabatu zuten Uharteko musikariek lan hau ekainan, Iosu Lopez, Marino Goñi eta San Martín anaien zuzendaritzapean. Osotara, milioi bat pezetako aurrekontua (40.000 libera) izan du grabaketak.

'Uhartekoak' egiteko ideia Patxi Leuza eta Eugenio Aristregi Uharteko gaiteroei bururatu zitzaizkien joan den urteko herriko bestetan. Jaiak zirela eta, Nafarroako iparraldeko hainbat gaiterok elkarrekin jo zuten Turrilasen 'San Estebaneko jaitsiera' eta jendeak oso ongi hartu zuen. «Orduan izan genuen arrakasta

kontuan hartuta, lan hau egitea erabaki genuen» azaltzen du Patxi Leuza Uharteko gaiteroak.

Uharteko gaiteroen taldea orain dela hamar urte sortu zen herri honetan. Gaur egun, Patxi Leuza, Eugenio Aristregi, Patxi Rubio, Ruben Vitas, Beatriz Martínez eta Mikel Esain dira taldeko kide. Uda garaian, batez ere, Nafarroako herrietan barrena ibiltzen dira txoko guztietako bestak alaituz. Gainontzeko hilabeteetan, Patxi Leuza eta Eugenio Aristregik gaita jotzen irakasten diote herriko eta inguruko beste hainbat haurrei. Bertatik ere jaio dira zenbait talde. Antsoain eta Atarrabian, adibidez, osatu dituzte halako gaiteroen taldeak.



Nafarroako
Gobernua

Hezkuntza Kultura
eta Kirol Departamentua

95-96 IKASTURTEKO LEHEN EUSKARA IKASTALDIRAKO MATRIKULALDIA HELDUEN EUSKALDUNTZERAKO IKASTEGIAN

Helduen Euskalduntzerako ikastegiak 95-96 ikasturterako antolatuta duen lehen ikastaldirako matrikula opea irailaren 11tik 22ra izanen dela jakinarazten du, honako ordutegi honetan: goizez 9etatik 12etara eta arratsaldean 16.30etatik 18.30etara.


Hiru ikastaro mota eskaintzen dira: 4 orduko ikastaro trinkoa (5.000 pezeta); bi orduko ikastaroa (2.500 pezeta) eta Sakontzen Ikastaroak: Euskara Teknikoa (60 ordu, 3000 pezeta); Literatura (30 ordu, 1.500 pezeta); Itzulpen gintza (30 ordu, 1.500 pezeta) eta Nafarroako euskalkiak (30 ordu, 1.500 pezeta).

Klaseak urriaren 2an hasiko dira.

Ikasle berriek argazki bat ekarri eta mailaketa frogak egin beharko dute.

Ikastaro bakoitzeko talde zein ikasle kopurua mugatua da, ikasleak izenemate ordenari jarraituz onartuko direlarik.

Matrikulak Helduen Euskalduntzerako Ikastegian egiten dira (Victoriano Juaristi k. z/g (San Jorge) Telefonoa: 17 7670 IRUNEA.



Hotza eta izotza. Bi hitz horiek ongi azaltzen dute Ternuako uretan barrena Euskal Herriko arrantzaleek urteetan eta urteetan aurkitu dutena. Bakailaoa harrapatzea joan dira bertara baina eguraldiaren eta itsasoaren gogortasuna ezagutu dute ezer baino lehenago. 50eko hamarkadan 40 untzi inguru ateratzen zen Pasaiako portutik Ternuarantz. Egun, urrun geratzen da kopuru hori, eta bakailaoa ere garai hartan baino askoz urriagoa da.

Lur barneko arrantzaleak

EDURNE ELIZONDO / ARBIZU

50eko hamarkadan Nafarroako gizon askok hartu zuten itsasorako bidea. Garai hartan, gure herrialdean lanik ezin aurkitu eta Frantziako basoetan aritzea, kontrabandoa edo itsasoa bera ziren askorentzat zeuden aukera bakarrak. Gizon horietako askok Ternuako ur hotzetan eman dituzte urteak eta urteak jubilatuta arte. Nafarroako iparraldetik joan ziren gehienak —Bera, Lesaka, Etxalar,...— baina Sakana aldetik ere, besteak beste, izan ziren Ternuara joandako lur barneko arrantzaleak.

Benancio Olasagarre arbizuarrek zortzi urte eman zituen Ternuako ur hotzetan, 1954tik 1962ra. Ondoren, beste hiru urte eman zituen freskoan. Itsasoan hasi baino lehen Renferako egiten zuen lan, basotan, Urbasa aldean batez ere. Arrantzan armadore baten etxean neskame hasi zen bere arrebaren bitartez hasi zen Olasagarre, 'Bahia de Pasajes' Pasaiako portuko untzian. Belasko armadorea izan zuen urte horietan nagusi.

Garai hartan onak eta txarrak bizi izan zituela aitortu duen arren, «Ternuako hotza, eguraldi izugarria» ditu Arbizukoak batez ere gogoan. «Lan gogorra da, oso gogorra». Urtarrila edo otsaila aldera abiatzen ziren Pasaiako portuko untziak Ternua aldera, eta hamar egun ematen zituzten bidean bertara ailegatu baino lehen. Benancio Olasagarre bikoteka ibili zen Ternuan, hau da, bi itsasontzi batera ateratzen ziren eta elkarrekin egiten zuten lan, sarea txandaka jasoz. Untzi batetik bestera zabaltzen zuten sarea eta hainbat miliatan zehar arrastaka eramaten zuten bakai-



Benancio Olasagarrek zortzi urte eman zituen Ternuan.

OSKAR MONTERO

laoa bertan harrapatuz. Sareak tranpa baten modukoa izaten zuten, bakailaoa behin sartuz gero bertatik ez ateratzeko. Arrantzan egin ondoren, sarea untzi batek jasotzen zuten, txandaka eta albotik. Gaur egun, atzetik igotzen dute sarea bakailaora joaten diren untziek. Urte haietan, hoge-

bikote inguru ateratzen ziren Pasaiako portutik Ternuarako bidean. Egun, ordea, Kantauriko kostaldeko portu guztietako untziak batuz gero ere, nekez iritsiko dira kopuru horretara.

Untzi txikiak izaten ziren bakailozaleak eta ez zuten, inolaz ere, egungoek daukaten aurrera-

pen teknologikoen erdia ere. «Itsasoaren sakonera jakiteko ere eskuz egin behar genuen, metroarekin», aipatu du Benancio Olasagarrek. Normalean, hemezortzi edo hemeretzi lagunek osatzen zuten tripulazioa.

Benancio Olasagarrearen garaiari, bakailaoa anitz zegoen Ter-

nuako uretan. «Asko harrapatzen genuen, 40 tona inguru. Burua kendu eta moztetakoan, hala ere, pisua jaitsi egiten zen. 45 kiloko bakailaoa 19 kilotan gelditzen zen», azaldu digu Arbizuko arrantzaleak. Untziak, alabaina, txikiak ziren, 200 tona ingurukoak. Gaur egun asko murriztu da bakailao kopurua eta Olasagarrearen ustez, «neurri txikiko arrainak harrapatzeagatik» gertatu da hori. «Arrain txikiak errespetatu egin behar dira baina askotan ez dugu hori egin eta ondorioak orain ikusten dira».

Untziak txikiak izanda, beraz, askotan egun asko galtzen zituzten bete bezain pronto Pasaiara itzultzen. Arazo hori konpontzeko 'untzi ama' zeritzona erabiltzen zuten askotan. «Untzia bete bezain laster, 'ama untzi' horretan hustu egiten genuen eta arrantzan jarraitzeko aukera bagenuen oraindik». Horrela, denbora gehiago eman ahal zuten arrantzan. Oro har, bost edo zazpi hilabetez izaten ziren Ternuan.

«Galiziar eta euskaldunok ibiltzen ginen Saint Pierre eta Miquelon eta Ternuako San Juango portuetan. Saint Pierre eta Miquelon irlan, hala ere, Frantziako exiliatuak egoten ziren batez ere, eta Al Caponek berak ere gordelekua bertan zuela erraten zuten askok». Bertako biztanleekin ongi moldatzen ziren arrantzale euskaldunak, «nahiz eta gastatzeko diru gutxi izan».

Ternuako zerua belztu eta haserretzen zenean, ordea, ez zegoen parrandarako astirik. «Ekaitz izugarriak ikusi izan ditut nik bertan». Zikloiak ere behin baino gehiagotan izan dituzte aurrean bertan ibilitako arrantzale guztiak. Benancio Olasagarre onik atera da guztietatik baina izan dira zorte txarragoa izan duten arrantzaleak ere: «Izan ziren, bai, ur azpian gelditu ziren untziak. Tripulazio guztia hil zen behin untzi bat urperatu ondoren. Txakurra bakarrik gelditu zen bizirik». Ternuan bizia utzi ez dutenek ere, osasuna galdu zuten bertan. «Erreumak jota bukatzen genuen denok, dorpetuta erabat». Benancio Olasaga-



Untzi gainean sortzen zen izotza zen Ternuara joaten ziren itsasontzientzat arriskutsuena, iraultzeko arriskua sortzen baitzuen.



kua zegoen». Hori dela eta, etengabe egon behar zuten izotza untzi gainera kentzen. Juanito Goia bikoteka ibili zen Ternuan, Olasagarre moduan. «Otsaila aldera ateratzen ginen eta normalean, lauzpabost hilabete ematen genituen etxetik kanpo». Hamar

hilabete ere pasatu zituen behin etxetik kanpo Goiak. Mari Karmen bere emazteak garai hartakoak gogoratu ditu: «Inolako berririk ez jasotzea guretzat berri ona zen, nobedaderik ez zegoela erran nahi baitzuen». 1970. urtean utzi zuen itsasoa Juanito

Goiak eta bere hirugarren alaba sei hilabete zituela ezagutu ahal izan zuten.

Berako arrantzaleak Arbizu-koak bezala, garai hartan bakailao asko zegoela azpimarratu du. «Errusiarrak, galiziarak, frantziarrak, portugaldarrak, euskaldunak, denok egiten genuen bat Ternuan eta bazegoen denontzat adina bakailao». Ez ziren berdinak, ordea, guztien baliabideak. Juanito Goiak portugesen kasua gogoratu du batez ere: «Belauntzitan etortzen ziren Ternuara. Txalupa txikiak uretara bota eta bikoteka ibiltzen ziren arrantzaleak bakailaoak eskuz harrapatzen. Egun guztia ematen zuten arrantzan eta gauean, harrapatutakoa prestatu eta hurrengo egunerako aparejoak ere prest izan behar zituzten. Lainoa zela eta, askotan galtzen ziren eta guk aurkitzen genituen radarrari esker», azaldu du Berako arrantzaleak.

Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleekin batera, Ternuako gogortasuna zer den ikasi dute

Nafarroako hainbat eta hainbat gizonak. Hotza, ekaitzak, zikloiak eta itsasoa bera izan dute askotan arerio. Etxean, familia artean, urte haietan bizi izandakoa gogoratzen dute egun arrantzale horietako askok. Beste batzuek, ordea, betiko egiten dute lo itsasoaren besapean Ternuako ur azpian. Ez dira oraingoak garai onak arrantzarentzat baina egunero Euskal Herriko eta Kantauriko kostaldeko gainontzeko portuetatik ateratzen dira gizonok. Jaunito Goia eta Benancio Olasagarren garai-ko hamabi miliatako muga, 200ekoa da

gaur egun eta lizentziak, orduan ez bezala, beharrezkoak dira arrantzan egin ahal izateko. Baina ez dute beste aukerarik, itsasoa baitute lanbide, itsasoa baitute bizitoki.



Garai hartan 40 untzi inguru ateratzen ziren Pasaiko portutik Ternuarako bidean»

Isiltasun susmagarria

● Gauza jakina da isiltasuna esaldirik biribilena bezain adierazgarria izan daitekeela. Karriketan manifestatzeko ohitura dutenek, esate baterako, noizean behin hitz eta oihurik gabe egiten dute horrela mezua garbiago ulertuko delakoan. Irratietan ere isilunearen garrantziaz ohartzen gara kazetariaren galderak berehalako erantzuna ez duenean.

Badira horiek baino isilune askoz luzeagoak eta horixe da eskuinaren bi ordezkari ospetsuenek azken hilabeteetan erabilitako estrategia. Dakizuenez, Ezkarozekoak ere hauteskundeak galdu ondoren gauza bera egin zuten. Zerbait hilabeteren buruan agintaldiak mugatuak direla konprenitu eta hizketan hasi zen baina apirilko egun batean, bat-batean, betiko desagertu zitzaigun guztiok oso triste utziz.

Eskuindarren isiltasuna, hala ere, ez du erran nahi Ezkarozekoa bezala desagertuta daudenik. Biak, bakoitza bere alde-tik, buru-belarri ari direlakoan nago, lan eta lan, gertaturikoaren erruduna plana egin zutenak ez baizik eta horretarako erabili zuten peoia (hitz egiten ari den bakarra) dela adierazteko.

Bitartean, Erriberakoa ahaleginak egiten ari da lau urte luzeegiak direla uste dutenen erasoei erantzuteko. Horretaz gain, astirik duenean, idazle lanetan ari da bere alderdian azken urteetan gertaturikoa liburu batean kondatu nahi baitu. Gutun, txosten eta bestelakoak biltzen aritu omen da aurtengo udan eta hemendik goiti sei hilabete beharko dituela dio hori guztia antolatu eta Best Seller-a gauzatzeko. Oraindik proiektu hutsa izanagatik, liburudendara joan behar dut idazleen zitak hain gustoko dituenaren lehen obra erreserbatzeko salgai jarri eta berehala agortuko delako. Ezetz asmatu liburuaren titulua. Eueuuup? Baliteke. Ez da titulu txarra.

Kritikontzi



PP itsukerian murgildua

XANTI BEGIRISTAIN

Garai honetan, 2000. urtearen atarian garen gero eta argiago agertzen ari da planeta osoan gauza bat, alegia, mota gutxiak konpontzen direla elkarrizketa, negoziazioa eta hitzarmenen bidez.

Hala ere, hemen Euskal Herrian eta hor Espainian, PP Gobernu agintera iristear da goenean, bere burukideek amorratuz eta itsukeriaz jarraitzen diote aurkako bideari.

Hasierako ideia garatuz esan genezake Hego Afrikan, El Salvador, Israel, Palestina, Jugoslavia ohia, Irlandan eta beste hainbeste lekutan eragin erabakigarria izan duela eta izaten ari dela era tolerantia eta elkarrizketaren bidea benetako justizia eta zuzenbidea negoziatzeko.

Hemen, Hego Euskal Herrian jende askorentzat, edota Espainiako ipar eremu honetan PP-koentzat, bakar-bakarrik adimen-itsu eta gorrek uka lezaketeko aipatutako tokian auzi politiko larria dagoela, besteak beste. Gehie-

nok dakigu arazo politikoek konponbide politikoak behar dituztela, eta gainera horrelaxe demostratu eta demostratzen ari zaizkigu gorago esandako hainbat herritan.

Baina ikusten dugunez, PP logika horretatik atera zen eta jokamolde berberekin jarraitzen du behin eta berriz, hau da, ETA erakunde armatuaren izena bera ere ezin du inondik inora ere aditu talde honetakoak hiltzaile ero hutsak baino ez direlako, HB-ko hautatu, ETA-ko eledun, Jarrai-ko partaide eta orokorrean Ezker Abertzalearen ordezkariekin PP ezin da elkartu hiltzaileen jarraitzaile, sustatzaile eta eskuin besoa direlako, eta azkenik Elkarrizketaren buruekin ere ezin da inontxo ere bildu eta solastu zeren eta azken hauek Aznarren iritziz ez baitute salatzen bortxakeria, besteak beste. Adibide moduan hortxe ditugu Elkarrizketa mugimenduak antolatutako Nafarroaren Geroa, Bilboko manifestaldia, Bilbon eginko Bake Konferentzia, Madrillgo Topaketa Isila, Carlton Hoteleko Mahai Inguru eta duela gutxi Donostian burututako Manifestaldi Isila.

Ongi ba, ekintza guztiei uko egin die sistematikoki PP-k orain arte, eta beti arrazoi ergel bezain burugabeak jarritz. Alderantziz, onartu beharra dugu gainerako alderdi politiko guztiak eta halaber sindikatua, neurri handiago edo txikiago batean hasi direla noizbait kontaktu nimenoren batean; zoritxarrez orain arte eskasegiak, eta batez ere PSOE-ri dagokionez.

Hortaz, diodan bezala, PP-k mehatxu egiten digu opari berberaz, hau da, tolerantzia predikatu baina intolerantzia praktikatu, elkarrizketa-negoiazioa-akordioa ukatu eta zapalkuntza-polizi bidea eta itsukeria gehiago eskaini. Hauxe dugu geure errealitatea.

Baina hala eta guztiz ere, PP-k tenkorkeria eskainiz eta ihardunez jarraitzen duen bitartean beste batzuek aurkako bidean segituko dugu pentsatuz hemen beste mila aberrian legez, argia eta bakea itunen eskutik etor daitezkeela.

Denborak emango dio norbaiti arrazoia. Bienbitartean, negoziatioaz denbora galtzeko arriskua baino ez dugu; besterik ez.

Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Jusef Egiategi xiberutar ilustratia

Andozeko Txomin Peillen Parisko xiberutarrak haren berri utzia digu

Arras aisa bazelaketa asma euskara gurea *vox vulgaris* tankerako elekatze zabar eta desorekatzat eukitze-ko joera dutenak. Euskaraz ez dute balio goren mailako abstrakzio kontzeptualizatuak adierazteko. Ezta urrik eman ere, elkor antzua baita. Gaztel mintzaira setazko kultur transmisio eragile deno, herri txipitakoa justu bordetako mintzoa genuke, horixe ere ezpada, hautsez beteriko mandio ahaztuetan utzi beharrekoa. Beste hariko ezpada. Susmoa dut zioa silogismoen aurreko zatieta dagoela, eta ez hitzen egituretan edo hiztegieta. Gaztelau andeatzailek azpatakadaz gure berba zilotzen saia denerako, xafla zorrotik elki gabe diraugu. Zauri baina ez herioak mende. Ezoraino. Beraz, ateratzearen ber ez litzateke biziki arraroa izanen XVIII. mendean euskaraz eginko filosofia liburu bat ildo entziklopedistaren gerizapean kausitzea sinesgaitza zinez gerta dakien: «*Jakintzük dakie hüskara ama mintzoetarik dela bata, hartakoz ere jin-koak eman zereion obedantza güziak dütiata, bena delakoz zekiakinen saldo-a hanitez jakintzüena beno handi-ago, ta hen üstiata hüskara lizatiata hiztera nahasi bat, ezkiderik, jarraiñirik elükiana bakhotzik, halako basa sinhestearen garhaitzeko. Ehinetan entzünik gaude, hüskaratik lankhei honik sorth'eztaitekiala.*»

Andozeko Txomin Peillen Parisko xiberutarrak aspaldi batean jada Jusef Egiategi zenaren berri utzia digu. Euskaltzaindiak euskal klasi-koak ezagutarazteko duen bilduma sail geldoan, eta horren seigarren zenbakiaz hornitua, bazen atera 1983. urtean argira Bizkaiko hiriburuaren xiberutar horren *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia* izenburuko lan mardula. Sarrera batean, Txomin Peillenek berak aitortzen du nolatan liburu horren ezagutzara ailegatu zen. Antza 1966. urte inguruan, egokitu zitzaion Parisko Bibliothèque Nationale delakoan egotea. Profitatu bide zitzaion, hortxe eskuizkribu baten aipamena ediren baitzuen 'Departament des Manuscrits' izeneko sailan 155 zenbakia-ekin, *Le philosophe basque, copie sur le édition de Francfort, 1788* alegia. Eskuizkribu hau aipatu hiri germanikoan agertzeko zen Beinat Edelmanen moldizkidian esan urtean eta izenburu honen azpian: *Filosofo hüskaldunaren ekheia Juseff Egiateguy, Züberoan Errejent denaren obra* (Studium, operaque ponenda in philosophando, non arbitrantur, def. Ag.).

Hauxe 1750. urte inguruan egina zatekeen, eta lan erraldoi baten lehenbiziko zatia baino ez litzate.

Egiategiren asmoa lan entziklopediko bat sortzea zen edo Lino Akesolo karmeldar jakintsuaren hitzetan: «*Obra en cuatro libros de enciclopedia práctica.*»

Lehenengo liburuki honetan berrogei kapitulu edo, Egiategi dabilen bezala, berezita daude, gai ezberdineko buruzkoak, besteak beste, bertudia, nekezia, baloria, izkontzia, axolgalbia, egia, amorioa, lotsa,...halarik ere, badira oraino beste 39 kapitulu galdurik dirautenak, ezin interesgarriagoak hagi litzkeenak: soldadu güdariatza, herria edo bakia.

Bigerren liburua Parisko liburutegian da, sail bereko 154 zenbakia-ekin. Ale hau liburuki lodixka bat dugu hiru zatitan banandua, lehenengo bat Oihenarteren esatera bilduma 50 orrialdetan barna beren frantses itzulpenarekin 538 zenbakiraino: «*Obra hau hirur partetan erhaltürrik dagoena. Lehena Mosde Oihenarterena. Bigarrena eta hirugarrena harenaren üdürriala direnak ez izanik ere, irakurtez ta gogamenez parropiatzko errejent mehe batena.*» Bigarren zatia beraz *Oharkerac, esanguiac ta bibétak, Juseff Egiateguic Zuberoan errejent denac bildu dutienac. Hirugarren berriz Mundiaren berriztas Mosde Etcheberriren gogomenac.* Bi hauek filosofia ta historia entziklopedia txikiak dira alfabetikoki paratuta eta autzerdarazko itzulpenarekin. 1778. urterako egina bide zituen.

Gogoratu beharreko hirugarren liburua, *Aberastarzun guzien gultz bakoitza, liburu hirugüerréna, etcheco andere hüscalduna etchalteco lanetas jakinturic aberatz guerthuren dena*, Angel Irigarai idorkitua eta ezagutzera emanikoa dugu. Honen eraginez erosi zuen Gipuzkoako Aldundegiak. Etxe ekonomiazko liburu hau Paben agertzeko zen 1782.ean, bertako Cordelieren khandian zagoen J.P. Vignancourten moldizkidian. *Eskiribazaliren bissoari* izenburuko sarreran Andre Margaita Basaburuarra izeneko neska xuberotar baten kondaera dakar. Bere bizitza Parisen eman osten, eta dirutza ederra bilduta, herrira itzultzea deliberratu du. Etxera deneko apez eta parropiako andereen lausengu hirotu baino ez ditu jasaten, gaztetango lagun baten bisita izan artio, eta berarengandik Xiberuko benetako egoera negargarriaren berri jasotzen du. Aferari aurre egin nahian, liburu bat idazteko mandatua uzten dio errejent liburu egile famatu bati. Segituan, Egiategiren liburua garatzen da zenbait kapitulu edo berezitan, haietako bat eta luzeena *erlietaz* izeneko izanik, bestearen artean.



■ Iruñeko Hiria' xake torneo itxiko zazpigarren ihardunaldi-ko partida. 1995eko urtarrilaren 3an jokatu.

Lluís Comas, 2.500 ELOkoa (Kataluña) — Jesus de la Villa, 2.490 ELOkoa (Euskal Herria).

1.d4,d5; 2.c4,c4; 3.e4,Zf6; 4.e5,Zd5; 5.Ac4,Zb6; 6.Ad3,Zc6; 7.Ze2,Ag4; 8.f3,Ae6; 9.bZ-c3,Dd7; 10.Ze4,Ad5; 11.Zc5,Dc8; 12.Ae3,e6; 13.Gc1,Zb4; 14.a3,Zd3 xa; 15.Dd3,Ac6; 16.0-0,a6; 17.Ag5,Ab5; 18.Oe4,Zd5; 19.a4,Ae2; 20.De2,h6; 21.Ad2,b6; 22.Ze4,Dd7; 23.b3,Ae7; 24.g4.

Erasotzeko ausardia. Beste aldean, alfilarren zutabeen zozzer salatzeke aukera badago.

24.....a5; 25.Eh1,h5; 26.g5,g6; 27.Gc2,Dc8; 28.fG-c1,Da6; 29.Da6,Ga6; 30.Gc7.

Zutabe horretan heldu da garaipenaren lehen urratsa. IKUS

KUADROA.

30....0-0.

Sarrera arrisksuaz babesteko, ez dute gaztelua harrapatu. 31.Gb7,aG-a8; 32.Zf6 xa,Af6; 33.g-f6,aG-b8; 34.Gb8,Gb8; 35.Eg2,b5; 36.b5,Gb5; 37.Gc8 xa,Eh7; 38.Gf8,Gb7.

Beltzen egoera oso ezerosoa da. Txurien menpe daude.

39.Eg3,g5.

Alferrik emandako peoia. Erregearen etorrera prest dago.

40.Ag5,Zb4; 41.Ad2,Zc6; 42.Ae3,Gd7; 43.Eh4,Zd4; 44.Ad4,Gd4 xa; 45.Eg5,Gd7; 46.h4.

Beltzek amore eman zuten, posizioari eutsi ezinik. ■



C

arlos Garcia eskalataile nafarrak bere bizitzako proiekturik handienari hasiera eman zion joan den uztailaren 11n: Kapitaina paretako 'The Nose' bidea osoki era askean eta bistan igotzea. Estatu Batuetara ailegatu zenetik entrenamendu gogorra egin du nafarrak, Natxo Barriuso, Unai Alvira eta Roberto Garcia taldekideekin batera.



Carlos Garcia nafarra uztailaren 11n ailegatu zen Estatu Batuetara.

CAROLINA ALVAREZ

egin asmoz. Bertan uztailaren 27a bitartean egon ziren Nafarroako espedizioiko taldekideak. Ondoren, Joshua Tree izan zen nafarren bidaiaren hurrengo etapa. Bertan Equinox kateatzea lortu zuten. Abuztuan, berriz, hasieran, Indian Creeken egon ziren, eta bertatik iparralderantz abiatu ziren, abuztuaren 17ra arte. Egun batzuetako atsedenaldia hartu eta gero, espedizioaren bigarren etapa hasi zen Carlos Garcia eta bere laguntzat.

Carlos Garcia, Yosemiteko Parke Nazionalean dago jada, eta gogor entrenatzen aritu da bere helburua bete ahal izateko: Kapitaina paretako 'The Nose' bidea osoki era askean eta bistan egitea, 900 metro eta 34 luze.

Helburua lortu ahal izateko,

Joan den asteburuan igo behar zuten nafarrek Kapitaina baina 52 graduko tenperatura zela-eta, bertan behera utzi zuten saioa.

taldeko gainontzeko kideen laguntza izan du Carlos Garciak, Natxo Barriuso, Unai Alvira eta Roberto Garciarena. Hil honen lehen aste hauetan, mundu mailan ezaguna den eskalataile batekin aritzeko aukera izan du eskalataile nafarrak, Ron Kauk estatubatuarrekin hain zuzen ere. Carles Brasco eskalatailea ere inguru horretan dago eta berekin entrenatzeko aukera izan du Carlos Garciak.

Nafarroako espedizioak azken egunotan egin duen entrenamenduari dagokionez, 'Astroman' izeneko bidea kateatu dute. Bide honek 600 metroko luzera du eta zailtasun gradua, 5.12 a.koa da. Bide hau ere Yosemiteko bailaran da. 'Salathe Wall-en' ere zailtasun ezberdineko bideak egin dituzte Carlos Garcia eta taldeko gainontzeko kideek.

Carlos Garcia, Roberto Garcia, Natxo Barriuso, Unai Alvira eta Carolina Alvarez eskalataileek osatutako espedizio nafarra joan den uztailaren 11n abiatu zen Irunetik Estatu Batuetara. Helburu hirukoitza zuen: Kapitaina paretako 'The Nose' bidea osoki era askean eta bistan egingo den lehen gizonetako espedizioa burutzea, lehenik. Ildo berean, Estatu Batuetako hainbat ingurutara joateko asmoz abiatu ziren Iruñetik eskalataile nafarrak: Yosemite Valley, Needles, Joshua Tree, Indian Creek, Canyonlands, American Fork, South Lake Tahoe, Tuolumne Meadows eta Smith Rockera. Azkenik, espedizioaren asmoa Nafarroan gero eta indar gehiago duen kirol honi bultzada ematea izan da. Asmoa lortzea, edonola, lorpen handia izanzen da Carlos Garciarentzat, eta baita kirol honetan murgilduta bizi diren guztientzat.


Nafarroatik Kapitanera

E.E. / IRUNEA

Carlos Garcia eskalataile nafarrak bere bizitzako proiekturik handienari hasiera eman zion joan den uztailaren 11n. Estatu Batuetarako bidea hartu zuen, Yosemiteko Kapitaina paretako 'The Nose' bidea osoki era askean (laguntza artifizialik gabe eta bera buru dela luze guztietan) eta bistan (aurretik zatiak praktikatu gabe) igotzeko asmoz. Orain arte ez du inork lortu berak egin nahi duena: 900 metroko paretara eta 34 luze. Bere helburua lortu ahal izateko Estatu Batuetan zehar egin beharreko entrenamendu gogorra prestatu zuen joan aurretik Carlos Garcia eskalataile nafarrak. Azken egunetan beroa izan du arerio, eta asmoari ekiteko aurretik finkatuta zuen eguna aldatu behar izan du.

Abuztuaren amaieran lehen etapa burutu eta gero, Yosemiteko Carlos Garcia. Azken egunotan bere prestakuntza gogortu egin du 'The Nose-ra' ahalik eta indartsuen ailegatzeko asmoz. Hil honetako lehen astetik, gainera, Natxo Barriuso, Unai Alvira eta Roberto Garcia nafarrak berarekin dira. Fausto Garate gipuzkoarrak, Estatu Batuetara ailegatu eta egun gutxira proiektua bertan behera utzi behar izan zuen.

Hasierako asmoen arabera, joan den asteburuan ekin behar zion Carlos Garciak 'The Nose' bideari baina azken egunetan izan duten



Indian Creek-eko paisajea ageri da argazkian. C.A.

temperatura altua dela-eta atzeratu egin behar izan dute. Hori dela eta, asteburu honetan zuzenrik saiaturik dira berriro.

Abuztuan zehar entrenamendu gogorra egin du espedizio nafarrak, batez ere aurrean izango duten harkaitz motara egokitzeko (granito artekatua). Erran dugunez, tenperatu izan dute arerio eskalataile nafarrek. Uztailaren bukaeran 52 gradutara ere iritsi ziren termometroak. Uztailaren erdialdean Yosemitekin izan zuten lehen harremana, eta ondoren Sequoia Park eta Needlesera abiatu zirenean, bertan ere hainbat saio

«Hirugarren Mundua duindu nahi dugu»

EDURNE EUZONDO / IRUÑA

Proyectos Iberoamericanos elkarteak antolatutako Nazioen Azokak joan den ostira-lean, hilaren 8an, zabaldu zituen ateak Iruñeko Antoniutti parkean. Iruñeko Udaleko Kultura Sailak San Fermin Txikiko besten barruan kokatu nahi izan du alor ezberdinak jorratzen dituen eta hilaren 24ra bitartean ikusgai izanen den Nazioen Azoka hau.

Karpa handi baten azpian, Afrika, Amerika, Asia eta Europako artisauek badute non

Azokak dituen helburu eta asmoez mintzatu da Sergio Frenkel EGUNKARIArekin.

EGUNKARIA.—Nola sortu da Nazioen Azoka?

SERGIO FRENKEL.— 1992. urtean sortutako proiektua da. Hasieran, ordea, Iberoamerikako Azoka zen eta Madrilen egin genituen hiru ekitaldi. Amerika Espainian azaltzea zen gure asmoa. Baina berehala konturatu ginen azokan beste hainbat herrirentzat ere lekurik bazegoela eta gure proiektua handitu egin zen. Oro har, beraz, hirugarren

helburu batekin zerikusia du izendapen berezi horrek. Izan ere, guregana hurbiltzen den jendea ez dator bakarrik zerbait ikustera, zerbaitetan parte hartzera baizik. Hau da, trukea dago bisitarien eta azokan parte hartzen duten herrietako ordezkarien artean. Horregatik deitzen diote zentzumenen azoka, bisitariak zentzumen guztiak erabiltzen baititu aurrean duen guztiaz jabetzeko. Gauzak ikusi, usaindu eta uki ditzake, edan edo jan dezake, dantza egin dezake, eta abar. Hainbat arraza eta kulturatako

hauetan, gainera, Frantziak hasi dituen proba nuklearren aurka kanpaina gogorra egin du talde honek. Azokaren bidez, kanpaina horretan parte hartzeko aukera dute bisitariak, gutunak bidaliz edo beste hainbat bide dela medio. Amnesty International elkarteak ere azokan parte hartzen du aurretan. Giza eskubideekin lotuta, besteak beste, Pekinen egin duten emakumeen biltzarraz zerbait gehiago jakiteko aukera eskaintzen du. Azokaren bidez erakunde hauen guztien lana bultzatu nahi dugu.

EGUNKARIA.—Proyectos Iberoamericanos elkarteak antolatuta du Nazioen Azoka. **FRENKEL.**—Bai. Proyectos



Sergio Frenkel argentinarra da Nazioen Azokako zuzendaria.

XOUSE SIMAL

erakutsi euren lana. Horiez gain, besteak beste Medicus Mundi, Amnesty International, Ayuda en Accion eta Greenpeace gobernuz kanpoko erakundeek ere badute euren proposamena jendaurrean zabaltzeko aukera. Baina Nazioen Azokak beste hainbat alor ere jorratzen ditu eta mundu osoko janaria probatu edo salsa eta merenge-a dantzatu nahi dituen bisitariak badu bertan zer egin ere.

Sergio Frenkel argentinarra da Proyectos Iberoamericanos elkarteak eta baita egun hauetan Iruñean dagoen Nazioen Azokako zuzendaria. «Ezohikotzat» jotzen du berak mundu osoko erakusgarri den feria.

mundua deiturikoaren herriak ezagutarazi nahi ditugu Nazioen Azoka honen bidez.

EGUNKARIA.—Zein helbururekin sortu da Nazioen Azoka?

FRENKEL.—Feria honetan parte hartzen duten herri edo nazio guztiak euren aurpegi edo alderik alaiena erakusten dute. Honela, herri horietako askok egunero bizi duten pobrezia eta miseria duindu nahi ditugu, hori da geure helburu nagusia. 35 herri inguruko kultur aberastasuna aurki dezake bisitariak Nazioen Azoka honetan.

EGUNKARIA.—Nazioen Azoka honi zentzumenen azoka ere deitu izan diote. Zer dela eta?

FRENKEL.—Azokak duen beste

jendeak elkar ezagutzeko aukera du gainera azoka honetan. Konpromezua ere garrantzitsua da.

EGUNKARIA.—Zer-nolako konpromezua?

FRENKEL.—Konpromezu bikoitza dela erran daiteke. Alde batetik azokak hirugarren munduaren garapenarekin duen konpromezua dago eta bestetik, guregana hurbiltzen direnengan sortzen den konpromezua. Nola sortzen den? Azokan parte hartzen duten gobernuek kanpoko erakunde bidez. Besteak beste Greenpeace elkarte ekologistak txoko propioa du geurean. Izan ere, lan garrantzitsua betetzen ari da gure ustez. Egun

«Lan gogorra da azoka antolatzea, baina Iruñean izan duen harrera ikusita, ontzat ematen dut egindakoa»

Iberoamericanos Amerika eta Espainiaren arteko harremana estutzeko asmoz sortutako enpresa da eta Madrilen du egoitza. Orain, hala ere, Amerikak ezezik, ia mundu osoko herriek ere badute txoko bat geure proiektuan. Guztion indarra batu eta hirugarren mundua deiturikoa aurrera ateratzea da geure asmoa.

EGUNKARIA.—Hilaren 24ra bitartean izango da Nazioen Azoka Iruñean baina, orain arte, zer-nolakoa izan da jendearen erantzuna?

FRENKEL.—Primerakoa. Donostian bi urtez izan gara baina Iruñera etorri garen lehen aldia da hau eta erantzuna ezin hobe izan da, benetan, oso kontent gaude. Bisitariak, gainera, parte hartzeko asmoz hurbildu dira eta hori funtsezkoa da guretzat. Hau bezalako azoka antolatzea ez da batere erraza, baina iruindarren artean izan duen harrera ikusi eta gero, egin dugun lan guztia ontzat ematen dugu, bai horixe.

Sergio Frenkel

NAZIOEN AZOKAKO ZUZENDARIA



Soslaia

Hiru urtez zuzendari

Sergio Frenkel argentinarra Proyectos Iberoamericanos-en eta egun hauetan Iruñean ikusgai den Nazioen Azokako zuzendaria da eta «pozik» agertu da feriak izan duen harrera paregabearekin. Orain dela hiru urte da azokaren zuzendari eta beretzat funtsezkoa da hirugarren munduko herrien garapena lortzeko horrelako ekitaldiak antolatzea. Sergio Frenkelek argi du azoka honetan parte hartzen duten herrien irudia, oro har, txarra dela gainontzeko lurraldeetan, «komunikabideetan agertzen diren bakoitzean berri txarrak emateko baita». Hori dela eta, «herrien duintasuna aldarrikatu» du Frenkelek. «Azokara hurbiltzen den jendea, herri hauei buruz duen irudia aldatu baino, bertakoei laguntzen saiatzen da».

PANE LUCRANDO

ZALDI EROA

